

Antzerkigintza

Euskaltzaindiaren

Hiztegian



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



UZEI

Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa

agerraldi

iz. Antzerki lanetan, ekitaldi bat banatzen den zatietako bakoitza.
Bigarren ekitaldia, hirugarren agerraldia.

agertoki

iz. Antzoki eta kidekoetan, ikuskizuna antzezten den lekua.
Agertokian sartzean. Agertokiak egongela bat irudikatzen du. Lehenengo ekitaldiko agertoki bera. || Hizlariak agertokitik mintzatu ziren.

aktore

iz. Antzezlea. *Aktore nagusia. Bigarren mailako aktoreak.*

amateur

1 adj./iz. Kiroletan, artean eta kidekoetan, profesional izan gabe, zaletasunez aritzen dena. *Iaz profesional maila utzi eta amateurretan aritu zen. Antzerki talde amateurrek. Gehienak amateurrek dira, baina eskarmentua dute antzerki munduan. Amateurren arteko pilota txapelketa.*
2 adj. (Gauzez mintzatuz). *Antzerki amateurrek aurreko urteetan baino leku handiagoa izango du aurten.*

anfiteatro

iz. Antzoki eta aretoetako harmailetan ezarritako eserleku multzoa.

antzerki lan, antzerki-lan

iz. Antzerkiaren generoko literatura-obra. *Antzerki lana gustatu zitzaion. Antzerki lan bat idatzi zuen Lizardik.*

antzerki talde, antzerki-talde

iz. Antzerki lanak antzezten dituen taldea. *Izen handiko antzerki taldea. Egitasmo honen helburua gazteen antzerki taldeak eta ikuskizun berritzaileak bultzatzea da.*

antzerki

1 iz. Jendaurrean gertaera sail bat irudikatzean datzan artea. *Atzerriko antzerki horretatik sortuak ditugu Zuberoako pastoralak.*

2 iz. Arte horri dagokion literatura-generoa; hizkuntza, herri edo idazle baten antzerki lanen multzoa. *T. Alzagaren antzerkia. Euskal antzerkia.*

3 iz. Antzerki emanaldia. *Ikusleek, sinple zein sofistikatuek, badakite zeren bila doazen antzerkira.*

antzerkigile

iz. Antzerki lanak idazten edo moldatzen dituen idazlea. *M. Soroaren belaunaldiko antzerkigileak. Idazle, zinemagile eta antzerkigile handia izan zen. Euskarazko antzerkigile onenaren saria.*

antzerkigintza

1 iz. Antzerki lanak moldatzea edo jokatzea; antzerki lanek osatzen duten literatura mota. *Antzerkigintzan murgildu zen batez ere, nobela albo batean utzi gabe.*

2 iz. Hizkuntza, herri edo idazle baten antzerki lanen multzoa. *G. Arestiren antzerkigintza. Euskal antzerkigintzan ere joera hori ari da nagusitzen.*

antzerkilari

iz. Antzerki lanak jokatzen dituen pertsona. *Antzerkilaria bakarrizketa luze batean ari zen bere bizitza kontatzen.*

antzerkizale

adj. Antzerkiaren zalea dena. *Elkarteak helburu argiarekin sortu zen: euskaraz lan egiten duten antzerkigile eta antzerkizaleek izan ditzaketen beharrei erantzutea.*

antzezkizun

iz. g.er. Antzezlan. *Ezagutzen ez ditugun antzezlariak eskaintzen digute, antzeztoki nabar zoragarri batean, ohi ez bezalako antzezkizun bat.*

antzezlagon

iz. pl. Antzezlan bateko pertsonaiak.

antzezlan

iz. Antzerki lana. *Igandera arte eskainiko dute antzezlan Antzoki Zaharrean. Orain arte bi aldiz bakarrik taularatu dute antzezlan. Oso murgilduta dabil antzezlan batean.*

antzezlari

iz. Antzezlea. *Irribarre sotilak egiten zituen eta musuak botatzen antzezlarien gisa.*

antzezle

iz. Zinema edo antzerki lanak jokatzeko dituen pertsona. *Filmeko antzezleak, ezin hobeak. Emakumezko antzezleentzat egina. Antzezleak agertokira igoko dira berriro.*

antzezleku

iz. Antzeztokia. *Bi argi gorri, ikusleei begira antzezleku aurrean.*

antzezpen

iz. Antzeztea, antzezlan jokatzeko. *Antzezpena amaitu zenean, txalo gutxi batzuk jo eta kanpora irten ginen. Zein antzezpen ederra egin zenuten. Film horretan egin zuen antzezpenagatik dago izendatuen artean.*

antzeztalde

iz. Antzerki taldea. *Edozein antzeztalde aurkez daiteke.*

antzeztu, antzez/antzeztu, antzezten

1 du ad. Antzerki lan bat jokatu. *A. Barriolaren Gai dagonaren indarra antzeztu zuten. Pastoralak antzezten ziren XVIII. mendean.*

2 du ad. Antzerki lan edo film batean, pertsonaia baten rola egin. *Bere burua ez zuen gai ikusten pertsonaia nagusia antzezteko. Obra hark gatzik ez zuen, gaizki antzezten zuten, erritmoa falta zuen.*

antzoki

iz. Antzerki lanak jokatzeko prestaturiko eraikuntza edo aretoa. *Donostiako Antzoki Zaharra. Bilboko antzoki txiki batean eman zuen kontzertua.*

argumentu

iz. Film, antzezlan, eleberri eta kidekoetan, istorioaren laburpena; kontakizunaren haria. *Argumentu sinple horretatik abiatuta, oso istorio polita eta hunkigarria egin du.*

arizale

iz. Zub. Pastoraletako antzezlea. *Ehun eta hemezortzi arizale igoko dira oholtzara, eta hauetatik asko eta asko gazteak dira.*

arte eszeniko

iz. Batez ere pl. Agertoki batean antzezten edo gauzatzen diren lanekin lotutako artea, adibidez, antzerkia, dantza edo opera. *Antzerkiaren eta gainerako arte eszenikoen arteko lotura aztertzeke jardunaldiak egingo dituzte Urduñan, bihartik hilaren 16ra bitartean. Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola Ofiziala.*

artista

iz. Ogibidez musikan, dantzan, antzerkian edo zineman aritzen den pertsona. *Honela ibiltzen da artista euskalduna.*

atrezzo

iz. *Antz., Zin.* Agertoki batean antzezpenerako beharrezkoak diren objektu, altzari, tresna eta kidekoek osatzen duten multzoa. *Duela urte batzuk atrezzorako zerbait falta baldin bazen gure ardura zen bilatu eta aurkitzea.*

azken hitz

iz. Idazlan, antzezlan, hitzaldi edo kidekoei bukaeran eransten zaien zatia, lanari buruzko laburpen edo azalpenak ematen dituen. *Sarreraz eta azken hitzaz gain, bost zatitan banatutako hiru atal nagusi dauzka testuak.*

bakarlana

iz. Bakarkako lana, bereziki musikari, dantzari edo antzezle batek bakarka egiten duena. *Kantariaren bigarren bakarlana martxoaren 8an izango da kalean. Bigarren zatian, dantzari gipuzkoarra bakarlanean aritu zen Capricho vasco piezarekin. Bakarlana eta elkarlana.*

bakarrizketa

iz. Antzezleri bakar batek jokatzeko duen antzerkia edo antzerki zatia. *Hainbat bakarrizketa eta jostirudi moldatu dituen idazlea.*

ballet

1 iz. Dantzari talde batek musikaz lagunduta antzezturiko dantza-ikuskizuna. *Balletera gonbidatu gaitu. Balleteko dantzaria. Balletaren koreografia.*

2 iz. Ballet ikuskizunak antzezten dituen dantzari taldea. *Moldaviako Ballet Nazionala.*

3 iz. Ballet ikuskizun baterako ondutako musika-lana. *Ch. W. Gluck-en Don Juan Balleta 1761. urtean jokatu zen lehen aldiz Vienan.*

bastidore

2 iz. pl. *Heg.* Antzezlan bateko dekorazioa osatzen duten albo bietako egiturak. *Grisellek lasterka egin zuen bastidore artean.*

bilbe

iz. Kontakizun baten haria. *Idazkera bikaina da, istorioen bilbea akatsik gabea.*

burtina

iz. Errezela; antzokiko oihala.

casting

iz. Ikuskizun batean aktore, aurkezle, modelo edo figurante gisa aritzeko egiten den hautapropa. *Hitzetik hortzera saioaren aurkezlea bilatzeko, casting bat antolatu zuten. Diru mordoa irabaztea eta telebistan irteteko gogoia izatea dira Basetxea-ko castingera aurkezteko amuak.*

dekoratu

iz. Antzezlan edo film bateko lekua edo giroa irudikatzeko erabiltzen diren elementuak. *Beldurrezko film batetik ateratako dekoratua zirudien. Lanbidez, antzerki dekoratuen egile zen Canalettoaren aita.*

drama

1 iz. Tragediaren eta komediaren gaiak nahasten diren antzerki mota; mota horretako antzerki lana. *Lessing-en dramak. Drama-idazlea.*

2 iz. Antzerki lan bihotz-hunkigarria. *Komedietan eta drametan trebetasun bera agertzen zuen.*

dramatika

iz. Dramaturgia. *Artearen legeak, dramatikaren arauak, ondo ezagutzen ditu.*

dramatiko

1 adj. Dramari dagokiona, dramaren ezaugarriak dituena. *Osagai dramatikoak zipriztinduriko komedia da nire filma.*

2 adj. Antzezleek mintzatuz, dramak antzezten dituena. *Komiko onak aktore dramatiko onak izaten dira normalean, egiatik abiatuta lan egiten dutelako.*

dramatizatu, dramatiza, dramatizatzen

1 du ad. Drama bihurtu, drama itxura eman. *Irakurketa zertxobait dramatizatzen zen.*

2 du ad. Egoera edo gertaera baten alde txarrak gehiegi nabarmendu, edo alde txar horiei gehiegizko garrantzia eman. *Ez dezadan dramatizatu; zortzi urte baizik ez ziren izan.*

3 (Partizipio burutua izenondo gisa). *Poemen irakurketa dramatizatua egingo dute.*

dramatizazio

iz. Dramatizatzea. *Musikaz gain, antzerkia eta dramatizazio ugari egiten dute.*

dramaturgia

iz. Dramak ontzeko antzea. *Dramaturgia-lana bere gain hartu du.*

dramaturgo

iz. Antzerkigilea. *Badakizu zer esaten zuen Bertold Brecht dramaturgo alemaniarrek?*

egokitzapen

iz. Zinema-, antzerki- edo literatura-lan baten moldaketa. *Argi dago lan itzela egin duela bai jatorrizko testuan, bai egokitzapen bikain horretan.*

ekitaldi

iz. Antzerki lan bat banatzen den zati nagusietako bakoitza, agerraldietan banatzen dena. *Ekitaldi bakarreko antzerki lana. Irri antzerkia, hiru ekitalditan. Bigarren ekitaldiko lehen agerraldian.*

entseatu, entsea, entseatzen

du ad. Zerbaiten saioa egin, bereziki antzerki, musika-emanaldi edo kideko batena, jendaurrean aurkeztu aurretik. *Uda ostean koreografiak entseatu eta urrian eta azaroan ikuskizunak izango dira hainbat aretotan.*

epilogo

iz. Idazlan, antzezlan, hitzaldi edo kidekoei bukaeran eransten zaien zatia, lanari buruzko laburpen edo azalpenak ematen dituen. *Bi zatien loturaz, lan honen epilogoan hitz batzuk esango ditut.*

errepertorio

iz. Musika-jotzaile, antzezle edo kideko batek ikasiak eta prestatuak dituen lanen multzoa. *Tapiak hogeita hamar piezako errepertorioa zeukan. Errepertorio zabala eraman du Euskadiko Orkestrak Ingalaterrara.*

errepresentazio

iz. Antzezpena. *Aste Santuan, toki batzuetan besteetan baino indar eta errealismo handiagoz, Jesusen heriotzaren errepresentazioak egingo dira.*

esketx

iz. Eszena laburra, gehienetan komikoa. *Antzezlan, zazpi esketxez osatua izango da eta hiru aktorek beteko dituzte pertsonaia guztien rolak.*

estra

iz. Filmetan edo kidekoetan eszena batzuk girotzeko azaltzen den pertsona, gehienetan hitzik egiten ez duena. *Aida operan parte hartuko duten ehun estra hautatzeko proba egingo dute.*

eszena

1 iz. Agertokia. *Eszena apaintzeko hiru oihal erabili dituzte.*

2 iz. Antzerkian, ekitaldi bat banatzen den zati bakoitza.

3 iz. Zineman eta telebistan, pertsonaien, lekuaren edo denboraren aldetik batasun bat duten zatietako bakoitza. *Zein zorrotz eta gordin deskribatzen dituen gerrako eszenak. Sexu eszena gordinak. Kristori buruzko eszena historikoak.*

4 iz. Arte plastikoetan, gertakari baten edo egoera baten irudikapena. *Erakusketak biltzen dituen margolanetan ohikoak dira eszena beldurgarriak.*

eszenatoki

1 iz. Antzoki eta kidekoetan, ikuskizuna antzezten den lekua.

Abeslariak, dantzariak eta gospel koru bat izango dira eszenatoki gainean.

eszenografia

1 iz. Antzezlan, film edo kideko ikuskizun bateko dekoratua edo dekoratuen multzoa. *Eszenografia apala, baina gustagarria.*

Eszenografia eta jantziak: Jorge Gallardo. Urria da, era berean, eszenografia bertsolarien saioetan.

2 iz. Eszena-dekoratuak diseinatzeko eta egiteko artea.

fartsa

iz. Antzerki-lan komiko-satirikoa. *Seigarren mailan testuarekin hasten dira lanean ikasleak, pertsonaia ugari dituzten komedia edo fartsekin, batik bat.*

figurante

iz. Filmetan eta kidekoetan, estra. *100 aktore eta figurante inguruk parte hartuko dute ikuskizunean.*

folletoi

iz. Literatura-, antzerki- edo zinema-lana, gertakari dramatikoak, gehienetan ez oso sinesgarriak eta gutxi landuak, kontatzen dituenak. *Folletoi txar bateko aktore sentitzen zen Kepa.*

gertaberritu, gertaberri, gertaberritzen

du ad. *Jas.* Berriro gertarazi; bereziki, gertatu den zerbait antzeztu. *Jesu Kristoren nekaldia gertaberritzen dugu kristauok.*

gertaberritze

iz. Berriro gertaraztea; bereziki, gertatu den zerbait antzeztea.

gertakizun

iz. Kontakizun baten haria. *Film honen gertakizuna geza samarra da. Gertakizuna poliki josia dago.*

giñol

- 1 iz. Txotxongilo mota, eskua barruan sartuz mugiarazten dena.
- 2 iz. Txotxongilo mota horrekin egiten den antzezpena.

hitzatze

iz. Epilogo. *Bi ondorio nagusi nabarmendu ditu J. Kortazarrek liburuaren hitzatzean.*

hitzaurre

iz. Liburu edo idazki baten atarian ezartzen den izkribua, gehienetan haren autoreaz bestek idatzia, hura irakurleari aurkezteko egiten dena. *Bigarren argitaraldiari hitzaurrea. Argitaratzaileak hitzaurrean dioenez. Hitzaurrea Orixek egin zion.*

ikusgarri

iz. Antzoki edo kideko areto baterako prestatzen den ikuskizuna.
Dantza-ikusgarri bat emango dute herriko pilotalekuan.

ikuskari

iz. Antzerki-lan, zinema-lan edo ikuskizun baten emanaldia; emanaldi horretan aurkezten dena. *Komedia eta ikuskari arriskutsuak utzi behar dituzu. Zirku ikuskaria. "Goizaldi" dantza taldearen azken ikuskaria. Ikuskariaren bigarren zatian.*

ikusbizun

iz. Antzerki-lan, zinema-lan edo kideko baten emanaldia; emanaldi horretan aurkezten dena. *Jaietako idi demak eta gainerako ikuskizunak. Zirku ikuskizunak.*

interpretazio

iz. Antzerki lan bateko edo film bateko pertsonaiaren baten rola jokatzeko edo antzezteko. *Zinema jaialdian, interpretazio onenaren saria eraman zuten Marivi Bilbao, Ramon Barea eta Alejandro Tejeria aktoreek.*

intriga

1 iz. *Liter., Zin.* Antzerki, film edo eleberri baten korapiloa.

2 iz. *Liter., Zin.* Film, antzerki edo kontakizun batean, gertakizunak eta egoerak ikusle, entzule edo irakurlearengan pizten duten jakin-mina; film, antzerki edo kontakizun batek jakin-mina pizteko duen gaitasuna. *Gidoi bikaina du filmak eta intrigak hasieratik amaiera arte irauten du. Egileak bidaiatzeko zaletasuna eta polizia-eleberria uztartu ditu intrigazko nobela honetan.*

irri antzerki, irri-antzerki

iz. Irri egiteko antzerkia, komedia.

jokalari

iz. Antzezlea. *Pastoraletako jokalaria*ik.

jokaleku

iz. Antzerki lan bat jokatzeko den lekua; bertan irudikatzen den lekua. *Jokalekua plazan eraikitzen zuten taulaz. Jokalekua: Kaliforniako ostatu-barne bat. || Bakezko eta demokraziazko jokalekua ekarriko duen akordio politikoa.*

jokatu, joka/jokatu, jokatzeko

1 du ad. Antzerkiaz edo kidekoen mintzatuz, gertaerak antzezlearen bidez irudikatu. *"Iparragirre" pastoralak jokatu zutenak. Bakarrizketa bat jokatzeko. || Dantza bat jokatu.*

2 du ad. Antzerki lan edo film batean, pertsonaia baten rola egin. *Zortzi aktorek 38 pertsonaiaren rola jokatu zituzte.*

jostirudi

iz. Komedia, bereziki Lore Jokoen garaiko euskal komedia. *Martzelino Soroaren jostirudiak. Ekitaldi bakarrean moldatutako jostirudia.*

kabaret

iz. Ikuskizunak aurkezten diren eta bezeroek bertan edan, afal edo dantzan egin dezaketen aretoa. *Kabareteko artisten artean.*

kabuki

iz. Japoniako antzerki mota, deklamazioa, dantza eta kantua uztartzen dituena. *Kabuki antzerkian gizonak, askotan, emakumeen rola jokatzeko dituzte.*

kale antzerki, kale-antzerki

iz. Kalean antzeztzen den antzerki mota. *Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia.*

kamerino

iz. Antzoki edo ikuskizun aretoetako gela, artistek emanaldi edo antzezpenerako janzteko eta makilatzeko erabiltzen dutena.

Ballet ikuskizunetara joaten diren gizonetatik gehien gustatzen zaidana da gero loreak bidaltzen dizkizutela kamerinora.

karakterizatu, karakteriza, karakterizatzen

da/du ad. Antzezlea, antzeztu behar duen pertsonaiaren itxura eta ezaugarriei dagokien bezala makillatu eta jantzi. *Lady Gaga abeslaria Maria Magdalena gisa karakterizatua ageri da Judas bideoan.*

karroza

iz. Luzaideko satira-antzerkia.

komedia

1 iz. Ikus-entzuleak jostaraztea helburu duen antzerki- edo zinema-lana. *Molière-ren komediak. Komedia-idazlea. Komedia erromantikoen parodia da haren azken filma.*

2 iz. Antzerkia. *Liburu gaiztoak, komediak eta dantzak.*

komediante

iz. Antzerkilaria, bereziki komediak jokatzeko dituen pertsona. (Maiz gutxiespen balioarekin erabiltzen da). *Ni ez naiz ibiltzen, kantuz dirua biltzen, komediante moduan. Komediante ibiltariak, Shakespeareren dramak jokatzeko.*

komiko

iz. Antzezleaz mintzatuz, komediak jokatzeko dituen pertsona, komedia-antzezlea. *Herriz herri ibili zen, antzinako komikoak bezala.*

koprodukzio

iz. Zinema, telebista, musika edo antzerkigintzako produkzio mota, enpresa bi edo gehiagoren artean eta, gehienetan, herrialde bat baino gehiagokoen artean, egiten dena. *Marseillako azoka, saltokia izateaz gain, topagunea eta koprodukzioak hitzartzeko lekua izan ohi da. Film hori Frantzia, Libano eta Palestinaren koprodukzioa da.*

koru

iz. Antzinako Grezia eta Erromako antzerkian, gertakizunari buruzko iruzkinak egiten edo kantatzen zituen aktore taldea. *Greziar tragedietako koruaren rola oraingo antzezle-musikarien rock talde indartsuak betetzen du.*

lehen perediku

iz. Zuberoako pastoraletan, hasierako zatia, antzezpena aurkezten eta laburtzen duena. *Jean-Yves Constantin, Etxebarne, lehen peredikuaren emaile izango da aurten.*

libreto

iz. Musikatua izateko idazten den obra dramatiko baten testua. *Los indianos zarzuelaren libretoaren egilea.*

maskarada

iz. Zuberoako dantza- eta kanta-ikuskizuna, inauterietan kalez kale joanez jokatzeko dena. *Maskaradetako jokalaria.*

mimika

iz. Pentsamenduak, sentimenduak edo egintzak keinuen eta gorputz higiduren bidez adieraztea; ahozko hizkuntzari laguntzen dioten edo haren ordean erabiltzen diren keinu adierazkorren multzoa. *Mimika bidez istorioak kontatu. Telefonoz, mimikaren laguntzarik gabe, beti izaten da zailagoa menderatzen ez duzun hizkuntza batean hitz egitea.*

mimo

1 iz. Mimika bidez egiten den antzezpena. *Antzerki modernoa dantza eta mimoarekin elkartuz.*

2 iz. Egintzak edo kontakizunak keinuen bidez irudikatzen dituen artista. *Plazatxo baten erdian mimo bat ikusi nuen: geldi-geldi zegoen, batuta bat jatorik, orkestra ikusezin baten aurrean.*

musikal

adj./iz. Filmez, antzerkiez eta kidekoez mintzatuz, elkarrizketekin batera, pasarte kantatu eta dantzatuak dituen. *Hollywoodeko komedia musikalak. Filmaren azken eszenak musikal batetik ateratakoa zirudien.*

mustra

iz. Antzezpen edo kideko baten, bereziki pastoral baten, errepikatzea, saioa.

mustraka

iz. *Zub.* Pastoral baten proba-saioa. *Neskenegun arrats oroz egiten dira mustrakak Sohütan. Antso Handia pastoralaren mustraka nagusia egin dute.*

off-eko ahots

iz. Zineman, telebistan eta antzerkian, irudien gainetik entzuten den ahotsa, besteak beste, narratzaile baten antzera, gertatzen ari dena kontatzen edo azaltzen duena. *Saioaren off-eko ahotsa, berriz, M. Fernandezek jarriko du. Abiada bizian agertzen dira irudiak pantaila handian; off-eko ahotsak kontakizun autobiografikoa iragartzen digu.*

oholtza

iz. Euskarrien gainean eraikitzen den oholezko lurra, emanaldi edo ikuskizun baterako prestatzen dena. *Oholtza gainean dira bertsolariak. Denak ari dira lanean, oholtza aurreko aulkiak lerroan txukun jartzen.*

oholtzaratu, oholtzara/oholtzaratu, oholtzaratzen

1 da/du ad. Norbait oholtza batera igo. *Hiru musikari oholtzaratu dira orduan, eta hiruren doinuak bat eginez joan dira apurka-apurka.*

2 du ad. Zerbait, bereziki, antzezlan, ikuskizun edo kideko bat, oholtza batean aurkeztu. *Attila, Giuseppe Verdik idatzitako lehen operetako bat, oholtzaratuko dute gaur Bilbon, Arriaga antzokian.*

oihal

iz. Antzoki baten agertokian igo eta jaits daitekeen ehun zati handia. *Oihala altxatzean. Oihala jasotzerakoan, urrutira txistulari taldearen hotsa entzungo da. Oihala beheratu.*

opera

1 iz. Kantari eta orkestraz antzezten den musika-lana. *Mozart-en operak. J. K. Arriagak ondu zuen opera bakarra. Euskal opera bat egin nahi zuen.*

2 iz. Musika-lan horiek osatzen duten generoa. *Opera-kantaria zen.*

3 iz. Operak antzezteko eraikitako antzokia. *Operako palko batean eserita.*

opereta

iz. Antzerki lan arina, zati kantatu eta mintzatuak txandakatzen dituen; lan horiek osatzen duten generoa. *F. Lehar-en operetak.*

palko

iz. *Heg.* Antzokietan, ikusleentzako balkoi modukoa, eserlekuak dauzkana. *Bere palkoa eskaini dio antzerki lan berri bat ikusteko.*

pantomima

iz. Hitzik gabeko antzezpena, keinu bidez egiten dena.

pastoral

iz. Zuberoako herri antzerkia, hitz neurtuz egina, errejentaren aginduetara, egitura jakin bati jarraituz, kanpoko oholtza baten gainean antzezten dena. *Pastoral bat antzeztu.*

pertsonaia

iz. Literatura-lan bateko edo film bateko gertakizunean esku hartzen duten pertsonetako bakoitza. *Pastoral batek berrogeita hamar bat pertsonaia eskatzen ditu. Karl Kraussen ipuin labur bateko pertsonaiari gertatu zitzaiona gerta ez dakion.*

protagonista

iz. Antzerki lan, literatura-obra, film edo kidekoren bateko pertsonaia nagusia. *Poema horretan jendea, "masak" dira egiazko protagonista, ez izaki bakun batzuk. Filmeko bi protagonistak.*

rol

iz. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzezten duen zatia. *Atzoko emanaldian, M. J. Moreno sopranoak etekina atera zion Musetta kaskarinaren rolari.*

suspense

iz. *Liter., Zin.* Film edo kontakizun batean, larritasuna sortzen duen unea edo pasartea; sentipen hori sor dezakeenaren nolakotasuna. *Alberto Ladronek suspenseari eusteko ia iaiotasuna erakutsi du.*

taula

iz. Oholtza. (Singularrean nahiz pluralean). *Koplariak ditugu orain iganak tauletara. Hamar dantzari izango dira taula gainean.*

taulada

iz. *Ipar*. Oholtza.

taularatu, taulara/taularatu, taularatzen

du ad. (Antzezlan edo kideko bat) taula edo oholtza batean aurkeztu. *Bernardo Atxagak eta Garik Aitormena lana taularatuko dute martxoaren 5ean. Ondoren, Gorringo taldeak Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlanaren taularatuko du.*

taularatze

iz. (Antzezlan edo kideko bat) taula edo oholtza batean aurkeztea. *Larunbatekoa ez da izango Antso Erregea antzezlanak izango duen taularatze bakarria, uztailaren 31n leku eta ordu berean antzeztuko baitute ikuskizuna.*

teatral

adj. Antzerkiarena, antzerkiari dagokiona. *Lantegi horrek dantzaren alderdi teatrala eta poetikoa sakonduko ditu.*

teatro lan, teatro-lan

iz. Antzerki lana. *Bost teatro-lan labur agertzen dira liburuxka honetan.*

teatro

iz. Antzerkia, jendaurrean gertaera sail bat irudikatzean datzan artea. *M. Soroa, euskal teatro berriaren aitzindaria. Teatro saria. Ez dut teatro gaiak aipatzeko ohiturarik; teatrori joateko ere, gutxi. 2 iz. Antzokia. Teatrori joan.*

teatrogile

iz. Teatro lanak ontzen dituen idazlea. *P. Larzabal, apaiz teatrogilea.*

teatrozale

adj. Teatroaren zalea dena.

tobera mustra, tobera-mustra

iz. Ezkontza hausteren bat-edo gertatzen denean, herriko plazan antolatzen den antzerkia. *Tobera-mustra batzuk muntatu.*

tragedia

iz. Gai goibel edo latza duen eta, halabeharrez, zorigaiztoko amaiera duen antzerki lana; lan horiek osatzen duten antzerki generoa. *Greziar tragediak. Racine-ren edo Ibsen-en tragediak. Tragedia giroa.*

tragikomedia

iz. Tragediaren eta komediaren elementuak dituen antzerki lana; era horretako lanek osatzen duten generoa. *Edward Albee antzerkigile estatubatuarraren tragikomedia Carlos Zabalak ekarri du euskarara. Tragikomedia gustatzen zait ikaragarri.*

trajeria

iz. *Zub.* Zuberoako pastoralak, bereziki antzezteko prestatzen den testua. *Casenaveren hamargarren trajeria. Ainharbe Godefroy de Bouillon trajeriaren emaile agertzen da 1790ean.*

trama

iz. *Antz., Zin.* Film, antzezlan, eleberri eta kidekoetan, kontakizunaren haria. *Hiru pertsonaia hauen arteko harremanek ematen diote tramari behar duen tentsioa.*

txotxongilo

iz. Eskuen edo harien bidez higiarazten den panpina antzekoa.
Txotxongilo antzerkia. Txotxongilo emanaldia.

vedette

1 iz. Ikuskizun bateko artista nagusia. *Ugariak ziren han yiddish antzeztokiak; hango vedetteek —Maurice Schwartz, Jacob Adler, Molly Picon— jendetzak erakartzen zituzten.*

xaribari

iz. Tobera mustra.

zulogune

iz. Antzoki, auditorium eta kidekoetan, agertokiaren aurreko gune beheratua, orkestra kokatzen dena. *Agertokiko zorua eta argiztapena hobetzeaz gain, orkestraren zulogunea ere konponduko dute.*

Eguneratze-data: 2023-03-16



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



UZEI

Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa